

EUSKAL SENDIA GIZA BANAKOAREN DEFENTSARAKO FUNTZIOETAN

Jokin Apalategi

Sendiari buruz anitz idatzi izan da. Gai indartsua da giza jakintzen alorrean. Izan ere, nor ez dago sendi bati loturik? Giza banakoak bere historia pertsonala muntatu behar duen bakoitzean bere erroak sendian dituela konstatatzen du. Horregatik sendiak aipamen aberatsak ditu, eta horietariko bakoitza bestea baino garrantzikoago edo hainbat garrantziko ageri zaigu. Nik, gaurko entseio honetan euskal sendia bere defentsako funtzioetan, eta hortan bakarrik aztergai hartu bide dut. Hortarako euskal gizartean gaur egun berezitasunez azpimarratuta ageri zaizkigun behar sozial batzuk izendatuko ditugu, eta ondoren horietariko bat eredutzat harturik sendiaren funtzioak horretan nola bilakatzaren diren ikusiko dugu. Gaiaren sarrerako atal honetan, iadanik, esan dezadan, gure mendebaldeko zibilizazioaren arrazoi konzeptoa sortzen hasi zeneko sendiaren defentsarako funtzio hau azpimarratu izan zigutela.

Horiatarik bat, orain eta hemen, adibidetzat aipatuko dut: Aristoteles ospetsuaren ikuspegia, alegia. Aristotelesek bere politika liburuan, gizartearen gaia ikutzen duelarik, ondoko molde, honetan egiten du: “Edozein hiri komunitate bat da, edozein komunitate ongia den zerbait lortzeko egina dago (zerbaitengatik ongia iruditzen zaien hartan guztiak partaide bilakatzen dira). Honela bada, komunitateek oro xede bezala ontasun bat bilatzen dute; baina, bereziki ontasun garaia, hots, gaineatiko guztiak konprenitzen dituen ontasun garaia komunitate garaien jokabidea litzateke. Eta komunitate garai hori hiria eta komunitate zibikoa deitzen dugu” (1).

Honela hasera emandako giaren erraietara igarotzen bagara, Aristotelesen baitan ondoko hau dagoela deskubritzen dugu: giza banakoa gizartearen beharrean aurkitzen dela zorientasunerako bide horretan. Baina, zer nolako beharra da hori galde genezake, hareago ailegatu nahirik. Eta galdera honi ihardespena emateko entseioan, bere maisu zen Platon gogoratzera iristen gara. Izan ere Platonek gizartearen sorreraren argudiotzea, giza banako bakiotzak bere

(1) Ikus ARISTOTELES, *La política*, Ed. Editora Nacional, Madrid, 1981, 47 orr.

interes pertsonal itxiarekin jardutean, azken funtsean, nola banako indartsua-
rentzat hala indargutikoarentzat dakartzen *arriskuak* seinalatuaz egiten du.
Arrisku horiek gaindituarazi nahirik, indartsuaren eta indargutikoaren arteko
hitzarmen beharrera heltzen gara (2).

Hitzarmen hori, ordea, ez da egitate batetara mugatzen. Aldiz, esan nahi
duena zera da, giza banakoen artean arrisku bat zutitzen den bakoitzean
indartsuen eta indargutikoen arteko harremanetan, aterabide bakarra hitzarme-
na bilatzea dela. Hitzarmen jokabide bat beti irekia eskatzen du gizarte bizi-
tzak. Zentzu gabea da giza beharretan eztabaida bat, gataska bat loratzen den
bakoitzean, aurreko aldian lortu zen hitzarmena erreferentziaz harturik bere
egoera itxiraturatuan gordetzen entseiatzea. Agerian dago bada, Aristotelesen
gizarte beharra zertan gorpuzten den: giza banako ezberdinen beharrak kontu-
tan hartuaz egituraturatuko gizarte litzateke. Eta egituratze horren oinak hitzar-
menean legozke. Hitzarmen gezurtuak, mugatuak ez du arriskua gaindituko.
Itxurazko edo maltzurkeriazko hitzarmena ez da zorientasunerako bide gertatuko.

Bestalde, Aristotelesek, giza banakoen besteekiko lotura horiek aldi-
aldiko elkarte mota ezberdinez egiten direla gizarte historian zehar adieraziko
digu. Ohartun da bere garaiko Grezian zutitu den hiria-Estatua ez dela gizarte
historian zehar agertu den lehen elkarte mota. Hori bai, uste du, polisa edo
hiria sekula eman den elkarte mota egokiena dela. Eta beregandik, lehen-
gizarte elkarte motetatik ez bezalako ondorioak itxaroten ditu. Hauek ezin
bideratu dituzten gataska berriak gainditzeko bidetzat ematen du orain hiria
edo Estatua. Baina, azken funtsean, giza banakoaren beharren serbitzari eta
lanabes litzateke Estatua Aristotelesen baitan. Estatuaren aintzineko elkarte
mota horiek, eta Aristotelesen baitan, oraingoaren oinarri eta osagarri sendia
eta auzoa lirateke. Geroztik gure egunetan ageri zaigun elkarte mota ezberdin
hauen arteko gataska etzuela ideiatzen Aristotelesek. Ondoko ataletan zertan
dauden gataska horiek agertzen entseiatuko gara. Oraingo bego hontan aipa-
mena. Garbi dagoena zera da, nola auzoa hala sendia, giza banakoaren defen-
sarako elkarte bezala ageri zaizkiola Aristotelesi. Beren lehen egitekoa, orde-
katzen duten taldeko giza banakoa eta bere ontasunak iraupenean gordetzeko
da. Guztien segurtasunerako eta lanen banaketarako sortuak izan dira.

Baina, mediterraneoko zibilizazioaren arrazoi konzeptoari lehen oinarriak
jarri dizkioten greko hauen ondotik giza jakintzen alorrean galdera mota anitz
formulatu izan da sendiari buruz. Zer nolakoak izan dira?

1. SENDIAZ GALDEZAKA GIZA JAKINTZETATIK

Sendiaz galdera multzo ezberdinak egin bide dira. Denak garrantzizkoak
aztergaiaren osotasuna ezagutzeko. Halere, guk orain xede dugun sendiaren

(2) Ikus, PLATON, La república o el estado, Ed. Espasa-Calpe, Madrid, 1983, 71 orr.

defentsarako funtzioa aztertzeoan soberakin zaizkigu batzuk bederen. Gure uneko jakin nahari ihardesten jarraitu aurretik, ordea, ikus ezagun giza jakintzetan zer galdera mota erabiltzen diren sendia agertzekoan.

Inolaz ere, galderen balorapen jerarkiko bat egiteko asmorik gabe egin ohi diren galdera horiek banakatzera goaz. Zer da ahaidetasunaren historia eta zenbat sendi mota ezagutzen ditugu historian zehar? Sendi forma ezberdin horiek beren bilakaeran legerik jarraitzen al dute? Ba dirudi sendia geroz eta forma ximpleagoetara ari izan dela. Zer nolakoak izan dira historian zehar sendiaren eta ezkontzaren arteko harremanak? Noiztik eta zergatik ezkontza sendiaren formakeran zutabe bilakatu izan da? Sendiaren neurriak historian zehar gora-behera haundiak izan ditu: noiztikoa da jaiotzen kontrola? Bizi bidearen baldintza eta ingurumen aldaketak zenbaterainoko zerikusia izan dute gertakizun horretan? Sendi bizitzan nolakoak dira sendikideen errolak? Zeintzuk dira sendiaren funtzioak? Ez dago inolako ezpairik, sendia bere egituretan, bere erroletan eta funtzioetan aldaketa etengabea ari dela. Nola ematen dira aldaketa horiek? Zer arrazoi ageri dira nagusiki?

Guk, guzi honi zehazki ihardesten hasteko asmorik ez dugu orain. Gure gaiaren esparrutxoari hobeto ezagutzen laguntzen diola erizten diogunari bakarririk leku emango diogu. Honela, adibidez, sokari hastapen muturra bilatu nahirik, ahaidetasun konzeptoari helduko diogu. Gaurregun, badirudi esanahi hirukoitzen ageri zaigula. Lehena, fisiologikoa dela esango dugu, eta odolkidetasunean oinarritzen dela. Bigarrena, soziala izanik itunean gorpuzten dela. Hirugarrena berriz, juridikoa izanik, ordezkotzean mamitzen dela.

Halere, berehala azpimarratu behar dugu, guzti hau beti ez dela horrela gertatu. Konzeptoen esperrua bera ere nahiz eta sendo eta iraunkor ikustera eman, beti aldatzen eta berritzen doana baita: produkzioko moldeen berritzeekin, gutunen aldatzearekin, testo-inguru sozialen erritmoaren trukateekin, eta abar, alegia. Honela dakiguna da, industria aurreko gizarteetan ororen gainetik soziala zela ahaidetasun konzeptoaren adierazpena. Produkzio molde haietan talde batek bizi zituen kultur, moral, erlijiozko baloreetan zegoen partaidetza mitikoa adierazten zuen. Adierazpen hauen lekuko, besteak beste, Marcel Mausek, Levi-Bruhlek, C. Levi-Straussek burututako hainbat ikerlan dugu (3).

Gainera, are adiera ezagun antzinako ahaidetasun nozioa klasifikatzailea zela, gaurkoa aldiz deskriptiboa denean: giza banako bakarrarena ezik gurasoen edo arbasoen klasearen adieraztzaile ornen zen, alegia. Molde honetan, antzinako Txinan, adibidez, “ama” hitzak talde hedatu bat izendatzen zuen; eta giza banako baten neurrietara mugatu nahi zenean, “ama” hitz horrek ez zuen

(3) Ikus, Marcel MAUSS, *Traité d'ethnographie*, Ed. Minuit, Paris, 1947.

LEVY-BRUHL, *L'expérience mystique et les symboles chez les primitifs*, Ed. Alcan, Paris, 1938.

LEVI-STRAUSS, *Les structures élémentaires de la parenté*, Ed. P.U.F., Paris, 1947.

balicrik norbait sortu duen emaztea izendatzeko. Aldiz, beti daukan esannahia, “amen” belaunaldi baten barrenean errespetagarrien den emaztea aukeratzekoa da. Era berean, “aita” ez da prokreazioan partaide izan den gizona izendatzera mugatzen, bere anaiak ere izendatzeko berdin balio baitu (4).

Guk, orain eta hemen aztertu nahi dugun sendiaren defentsarako funtzioa zer testo-ingurutan gizarteko beste elkarte mota batzurekin gataska bidean sartzen da? Galdera hau lantzeko, labur bederen beharrezko zaigu egungo industrial gizartean aurregunera igaroaz propietate pribatuak lortzen duen sozializaera eta figura berria azpimarratzea eta berari loturik Estatu modernoaren berzitasunak aipatzea.

Estatu modernoak, aurreko Estatu forma guziek bezala armetan erroak izanik, legeri bat emanaz bertan bere funtzioak justifikatuko ditu. Baina aurreko Estatu forma guziek baino ohartunago, gizartea, berdintasun eskubidean aipaturik ere, zapaltzaile eta zapalduen joku bezala normatuko du. Honela, zapaldueri “hiritar” eskubide arrunta emango dielarik, zapaltzaileentzat *fakultate* edo *ahultasun* bereziak ezagutuko dira. Molde honetan, Estatu modernoak gizartearen autokontrola armetan oinarrituaz funtzionalki eragingo du.

Are oraino, Estatu modernoaren baitako gizartearen jokamoldeak zehatzago aipatzea merezi dutela, aburu izanik, ondoko puntu hauek gehiagotuko ditugu:

1. Zapaltzailearen egitekoa zapalduen jokabideak aginduen, oharren, debekuen bidez hiritarraren lege arruntetara bilduaraztekoa da.

2. Zapaltzaileak zapalduekin dituen harremanak zuzeneko tirabiran bilaka ez daitezten, bien arteko lanabes bezala, erakundeak eraikitzen dira. Honela bada, erakundeak bere izaeraz, erregulatzaile, amortiguadore izateko sortzen dira.

3. Bestalde, zapaltzailearen eginkizuna eta poderea “esparru mugatuetan” bakarrik bere zuzeneko ardura peko agertuko da. Guztiaren jaun eta jabe denik ez da erakutsi behar. Arduren orduan bere bizkarrak gordeak daitezten. Desgastea ebitatu behar du. Zapaldua, sozial alor batzuetan libro, eta turnoko banako zapaltzailearen gaintetik dagoela sensazioa edo inpresioa eman behar baita.

4. Finean, zapaltzaileak emandako aginduak haustea firmoki eta gogorki santzionatu behar da. Hortarako, dominioaren efektibitatea zaintzeko eskubi-deen eta betebeharren sistema parekatuko dira.

Aipamen hauekin Estatu modernoaren markoa sendiarekin nola gataskaturik aurki daitekeen adierazi nahi izan dugu. Estatu modernoaren arautzekoan dauden klase ezberdintasun oinarritzko horiek biziki zaila egingo bait dute

(4) Ikus, M. GRANET, *La civilisation chinoise*, Ed. A. Michel, Paris, 1929.

eskubidezko berdintasunaren aplikapena. Gainera, Estatu moderno honek bere egungo lur mugak sendotzekoan edukitako jokabideak, indarrezko asimilazioarenak, ondoko *hitzurmenezko* oinarriak satorrak lurpetik bezala etengabe joko ditu. Eta gaurko Euskal Herriak bizi duen etengabeko gataska politiko gordindua horren ondorioetariko bat dugu. Eta Estatu modernoaren bigarren koorde-nada hau ere sendiaren babestzaile funtzioaren probokatzaile gertatuto da.

2. EUSKAL SENDIARI BURUZKO IKERKETAK

Euskal sendiaz gure pentsalariak, eta bereziki antropologoen, anitz idatzi izan digute. Besteak beste, eta hemen inolako zerrenda borobil eta definitiborik emateko xederik gabe, aipagarriak dira alor honetan Arturo Campionek, Sabino Aranek, Engracio eta Telesforo Aranzadik, J. M. Barandiaranek, Juan Thalamasek, eta abar egindako ikerketak. Guk, orain burutu nahi dugun lan honekin, bidenabar, Julio Caro Baroja euskal jakintzeta langile bezala oheretu nahi dugunez, atal honi dagokiona berak idatzitakoa jarraituaz laburtuko dugu.

Hastapen beretik adierazi beharrezkoa da, han-hemen, lan ezberdinetan idatzi izan duela euskal sendiaz J. Caro Barojak. Halere, bere idatzi guztiak ez zaizkigu maila berean beharrezko gure sendiari buruzko ikerketa mugatua ilustratzeko. Iadanik adierazia dugunez, euskal sendia bere funtzioetariko bate-tan bakarrik aztergai bait dugu gaurkoan.

J. Caro Barojak, gaineatiko euskal pentsalariekin ados, euskal sendia aipatzean, berehala beste zerbaitekin lotuko du: etxearekin eta auzoarekin, hain zuzen. Hirukote harremandu bakartu bat altxatuko du. Eta hau, euskal gizartean artzaintza-lurlangintza produkzioko molde nagusi izango den binbitarteko guztirako. Historia epetze hau garrantzizkoa gertatuko da geroago seinalatzen joango garen arrazoiengatik. Banazka ezagun guzti hau hobeto aztertzeko.

Sendia zer den artzaintza —lurlangintza produkzio molde nagusi duen euskal gizartearentzat agertuko digu lehen lehenik: “La familia está encajada de modo particular como tal, dentro de una ‘unidad’. Considerada en su máximo tamaño, se compone de los elementos que siguen: 1. Un matrimonio de edad madura = los abuelos. 2. Un matrimonio más joven = los padres. 3. Unas personas solteras hijas del segundo matrimonio. 4. Tal vez algún pariente soltero, hijo del primer matrimonio, y hermano de uno de los que forman el segundo. 5. Criados: no más de un mayor y un chico” (5). Guri halere gehiago interesatzen zaigunez pasa gaitezen bere funtzioak nolakoak ziren aztertzeraz. Hau agertu nahirik J. Caro Barojak, antropologian bere gidari izan duen Radcliffe Brown-en berezketa bat plazaratzen digu: “Hay que distinguir entre la ‘estructura’ social, considerada como una realidad concreta (la

(5) Ikus, Baile, familia, trabajo, Ed. Txertoa, S. Sebastian, 1976, 124 orr.

suma o conjunto de relaciones existentes en un momento dado, que unen a un número determinado de seres humanos) y la ‘forma estructural’, normal o general de relaciones, con abstracción de las variaciones en casos particulares (aunque se tengan en cuenta tales casos al estudiarla). La distinción ha sido discutida y negada. Yo creo que es válida e importante, como he dicho: pero creo también que existen, de por sí, los casos que le son dados al hombre, que vive en una sociedad, dentro de una ‘estructura’ a la que el hombre mismo se ve obligado a dar interpretaciones siempre o casi siempre diferentes, interpretaciones que van —con frecuencia— contra esta llamada “forma estructural”, tenida como normal o general. Para ilustrar lo que digo, quiero llevar a cabo un estudio concreto de algunos tipos de familias navarras de las que podríamos considerar que se ajustan más a la “forma estructural, dada como normal y típica en aquel país desde antiguo: o sea aquella forma en que la casa y sus pertenecidos gravitan de modo imperioso sobre hombres y mujeres, de generación en generación” (6).

Euskal sendiak, bada, bere artzaintza-lurlangintza giroetan iraupenezko araudi bat eta jokabide bat izan du. Napparroako eredu bera baita gaineatiko euskal herrialdeetan. Gure sendiari buruzko harira itzuli nahiaz guzti hori zertan gorpuzten zen, guzti horren zergatia, eta zertarakoa jakin nahiko genuke. Eta J. Caro Barojak berak ematen digu ihardespen adierazgarri bat, nahiz eta ez asegarria.

“Desde un punto de vista descriptivo, etnográfico, podemos reducir todo lo dicho a principios claros de Derecho foral, o de Derecho consuetudinario y a ‘sistemas’ de creencias y usos religiosos, funerarios. Visto el asunto así, puede haber quienes consideren que el *sistema* ha sido bueno, para mantener la estabilidad de la propiedad, el trabajo familiar, etc. ¿Pero cabe sacar más consecuencias a la ‘forma estructural’? Los ejemplos no autorizan a ello. Menos aún a hacer su apología desde el punto de vista moral. La estructura física de la casa domina sobre otras muchas posibles *funciones* de la familia y del trabajo. Podemos ante estos casos explicarnos bien el ‘porqué’ a que se ajustan. En lo de ‘para qué’ hay que ser más cauto” (7).

Sendiaren funtzioak ez bazaizkigu bananduaz izendatzen ere, argi dago ondoriotu daitekena dela, bere kideen defentsarako funtzioak ageri direla euskal sendiaren egitekoen artean. Zer moldetako defentsak? Hori aldian aldiko egoerak izendatuko du. Behar zehatzen arabera jardungo baita euskal sendia.

Sendia euskal gizartean zehar osotasun bat bezala hartu izan da. Bere kide diren giza banako guztiak arautzeko jokabidea interes partikularren eta sendiaz kanpoko gaineatiko elkarrean aginduen gaintetik ageri da. Honen oinarrian, euskal “banakotasunaren edo indibiduotasunaren” pentsakera ageri da.

(6) Ikus, Vecindad, familia y técnica, Ed. Txertoa, S. Sebastian, 1974, 62-63 orr

(7) Ibid., 97 orr.

Honela J. Caro Barojak ondoko hau azpimarratuko du: “Para mantener la individualidad de la casa y el predio, su ‘individualidad’, que contrasta con la de otras casas y tierras de la península, tienen que someterse a unas reglas que chocan a la par con las leyes modernas y con los intereses particulares muchas veces” (8). Azpimarragarria da *moderno* hitz hori. Bere testo-inguruko adierazpena *Estatu modernoa* baita.

Euskal etxea, bada, euskal sendiaren zatiki bat da artzaintza-lurlangintzatik biziko den euskal herriarentzat. Baina, aldi berean, etxeak bere luzamena edo proiektzioa auzoan bilatzen du. Euskal etxeak nahitaez auzo bat du osagarri. Azken funtsean, euskal sendiaren funtzio zenbait auzoan betetzen dira.

Ideia berri hau hara nola adierazten digun J. Caro Barojak: “En cualquier circunstancia, para los moradores de una casa de éstas que forma un grupo cualquiera de los descritos, resulta más importante la vecindad que la parentela que vive fuera de ella, a lo largo de la vida cotidiana. Las relaciones con consuegro, tíos y sobrinos, primos, etc., residentes en caseríos separados o lejanos entre sí, son menos continuas, intensas y sujetas a reglas que las relaciones entre vecinos de casas próximas. La vecindad obliga a una serie de trabajos colectivos y de servicios mutuos. Su importancia esta expresada, también, por numerosos ritos” (9).

Honen esannahia konpreni erreza zaigu: euskal sendiak auzoraineko mundua bere beharretarako onartzen du eta ondorioz arautzen du ere. Baina, hortik at dagoen elkarte motarik ez du beharrezkotzat jotzen. Guzti hau Euskal Herriak artzaintza-lurlangintza produkzio molde nagusi zituenean argi dagoen erreferentzia da. Arazoak produkzio molde berrien sorrerak eta bilakaerak ekarriko dizkio euskal sendiari. Horietan bere betidaniko kontrola eta nagusigotasuna galzorian jarriko bait zaizkio. Laburpen gisa, bederen, hau litzateke euskal sendiak, lehenik hiritar eta geroago industrial bilakatuko den produkzio moldearen hedapenarekin edukiko duen bilakaera. Euskal sendia hirian kokatuko denean, oraino hiri horiek herrien tankerako besterik izango ez direnean, *sendia-herria* bikotea eratuko da aurreko hirukotearen laburpen. Oraingo sendia, gurasoek eta haurrek osotuko dute. Ikusten dugunez etxea desagertzen da. Edo eta gehienez ere, etorriaren lekuko aitona-amonen loturara mugatuko da. Hiritar zibilizazioan etxearen pentsakerak porrot egingo du. Are oraino, geroago hiri erraldoiak (ez herriak) sortzearekin bertako euskal sendiek aurreko bikotea puskatuta ikusiko dute. Une honetaz gero, sendia bere soiltasunean bakarrik gelditzen da. Gehienera, eta galdu den erreferentzien ordain Euskal Herria, lurralde, hizkuntza, eta arbasoen ondare osoaren gunea bezala suspertuko da. Guzti honetan, oso geure den zerbait, eta gurea baino orokorrago dena gurutzatzen dira. Orain, industria zibilizazioan, banakoa, sendia eta auzoaren gaineko elkarte motak dialektika gogor batetan bilakatu zehar

(8) Ikus, Baile, familia, trabajo, op. cit. 125-126 orr.

(9) Ibid. 120-131 orr.

agertuko zaizkigu. Hurbiltze orokor bat egin ezagun, euskal sendiaren funtzio berriak aipatzeko atarian.

III. SENDIA HIRIEN MARKOAN

Hiriak, giza jakintzetan ezaguna denez, merkatal egitura bat du sorburuan. Merkatal egitura horrek gure egunetan hain ezagun diren burgesak ditu aktore nagusiak. Beren jokabidearen luzamendu esplikatu behar da ere monarkia absolutoen subiranotasuna ezagutuko duten gizarteen zutitzea. Eta monarka absolutoarean figura hori, geroztiko sendiak jarraitu duen eredu autoritarioa, hots, pater familiae autoritatearen eragilea dugu.

Merkatal gizarte honek hirigintza medio gizarte harreman berezi batzuk eragiten ditu. Seinala hitzagun bere formakeran eta ondotiko bilakaeran ageri diren jokabide nagusiak. Guzti honetan beste behin ere J. Caro Barojari jarraituko diot: “La fundación de núcleos urbanos se ha interpretado de distintas maneras según los tiempos y según los intérpretes fueran hombres de leyes, admiradores del poder real, hombres de Religión, con gran fe, sociólogos liberales y otros seguidores de doctrinas propias de nuestros tiempos...

Pero frente a ciertas concepciones que pueden considerarse espirituales (la religiosa) o intelectuales (la económica y la sociológica que especula sobre la ‘voluntad’ de vivir de una manera), queda una realidad más dramática: la lucha política y militar de las monarquías y estados, y el enfrentamiento de los particulares divididos en bandos. Los intereses se combinan y conjugan. No se puede dar prioridad, en este proceso, a lo religioso sobre lo político, ni a lo político sobre lo bélico” (10).

Hirian bada, lehenasunez ez da giza banakoaren serbitzua bilatzen, aitzitik batzuren interesen hobegotzea de xede orokorki bederen. “La ciudad es, pues, un centro de atracción de fuerzas y fuentes de riqueza. Y como estas fuerzas no son precisamente de carácter moral, sino más bien lo contrario, no puede funcionar sin leyes y ordenanzas muy minuciosas y sin una autoridad que las haga cumplir. La lucha dentro de la ciudad es uno de los rasgos esenciales de la vida en los siglos XIII, XIV y XV” (11). Hiri horiek sozial balorapen baten arabera jerarkizatuak izango dira: “Bastantes poblaciones de nuestro país, hasta los albores del siglo XX, se han ajustado a unas normas según las cuales se observa en ellas un punto, posiblemente el más alto, en el que se concentra *la fuerza o el poder temporal mayor*, indicada por las ruinas del castillo. Cuentan también con un núcleo central en el que está la iglesia más importante, es decir, la representación del poder espiritual y en torno a ella las viviendas de los caballeros o la gente más representativa y ejecutiva en

(10) Ikus, Paisajes y ciudades. Ed. Taurus. Madrid, 1981, 163-164 orr.

(11) Ibid., 194 orr.

casos graves. Luego vienen las calles, regulares o no, de artesanos, menestrales y mercaderes: acaso las de éstos más ricas y atendidas. Mas en la periferia quedan los barrios o arrabales de labradores y todavía en estado de apartamiento mayor en casos (aunque en esto hay variaciones) las juderías, moreñas, barrios de leprosos, etc.: los apartados por la ley religiosa, puesto que la misma lepra se considera como un castigo de la Divinidad” (12).

Halere, ez da pentsatu behar hirian borroka giroak agintzen duenik, aitzitik hobeto litzateke espresio bezala, borroka ondoko garaipena hezurmamitzen ahalegintzen direla garaileak hiriaren bidez. Bistan da orduan, ordena eta ordenamendua gorde arazteko lanabes egokitzat ematen dutela hiria. “Orden y concierto, solidaridad, espíritu de cooperación, de un lado. Todo esto se ve en la ciudad luchando contra la tendencia al desorden, a los abusos, a los caprichos y a los apetitos individuales. Una expresión formal de voluntad de orden, que hasta cierto punto puede parangonarse con la religiosa ya indicada, es la que queda reflejada en las planificaciones, que tanto han ocupado a los urbanistas” (13).

Burgesiaren sendotzearekin hiriaren forma demokratikoak, hots, forma demokratikoekiko Elkarteen eta Estatu moderno beraren gorakadak lehentasuna hartzen joango dira barrenkideen artean berdintasun formala zabalduaz. Baina horrek ez du esan nahi sendiaren defentsarako funtzioa galzorian jartzen denik bere zeregitekoak bukatzen ari direlako, aitzitik defentsa beharko duten alor berrien sorrera ageriko da. “Durante el siglo XIX se quebró, en efecto, casi por completo el principio de la división por clases y, sobre todo, por oficios dentro de la ciudad. Pero se vinieron a construir casas que, en sí mismas, eran la expresión de las diferentes categorías sociales. En los sótanos y sotabancos de ellas vivían y tenían sus talleres humildes menestrales. En los pisos llamados ‘principales’ (subráyese el significado originario del adjetivo) vivían personas pudientes. Burguesía más o menos acomodada en los superiores, hasta llegar a las buhardillas, donde otra vez se encontraba la familia pobre o el taller. Semejante tipo de vivienda pervive, pero va contra las concepciones actuales. Tan acostumbrados estamos a la idea de ‘barrios residencias’, ‘colonias obreras’, ‘barriadas protegidas’, etc. Dentro del sistema decimonónico cabía una mayor comprensión mutua y la idea de la vecindad seguía siendo importante en la vida familia” (14).

Gaur oraino, hirietan galdua den auzo ideia hori bizirik dagoela gure herrietan ikusiko dugu azken atal batetan. Aldakuntza anitzekin, noski. Baina, atal horri heldu aurretik ikus dezagun laburpen modura bada ere, kapitalismoaren bilakaerako une ezberdinetan sendiak edukitako errola nolakoa izan den sistema horren balorapenean.

(12) Ibid., 177 orr.

(13) Ibid., 198 orr.

(14) Ibid., 105-106 orr.

Kapitalismoa eta bere Estatuak hasiera batetan sendiaz serbituko dira beren jerarkia sistema, obediencia jokabidea eta abar, lantegietan azken bururaino bilakazteko. Baina, oraino sarritan esku lanaren beharrean aurkituko den kapitalismo hori, espansio arora ailegatuko denean, emazteen lanaren beharra duela eta, sendi tradizionala haustera igaroko da. Era berean, kapitalismo hori imperialismoaren legeetan sartuko delarik, langileak edozein naziotatik, herritatik, auzotatik bere lantegietara landatuaz, langile talde desherrituak eta deserrotuak sortzen joango da. Molde horretan, giza banakoaren defentsa historikoak, hots, sendiaz kanpoko defentsarik nagusienak, ankapetu eta desegin eginen ditu. Eta kapitalismoak bere xede bakarra duen produktibitatea itxuturik, eta horren ondorio irabazien hobeagotzeak eskatuta aurkituko dituen bide-gurutze berrien aitzinean, hots, egungo egunetan bizi dugun bezalakoan, informatikak eta errobotikak dakartzeten aurrerapenen ondorio, langileari langabeziarekin ihardetsiko dio. Langileak ito-larrian suntsitzen utziaz, giza banakoen lanerako eskubideak zakar-untzira botako ditu. Eta horrelako egoerak kapitalismoaren sistimarentzat sor dezakeen erreakzioaren beldurrez eta hortaz prebentzioa hartu nahirik, eguneroko bizitzan arruntki bizi dugun gehiengoak gure defentsa bakarra dugun *sendia* erasoko du.

Aipatu berri ditugun gizarte eta giza banakoaren defentsa tradizionalen aurka kapitalismoak daraman jokabidea ikuspegi honetatik so aztertzen badugu, bereziki konprenigarri gertatzen zaizkigu gaurregungo kapitalismoak aldizkatuaz eta erritmoki nahastuaz gure Euskal Herrian hedatzen dituen sozial fenomeno berriak: droga eta errekonbertsioa, damutuaren aitormena eta sozial promozioa. Kapitalismoaren zibermetika aroan, ba dirudi kapitalismoari informatika eta errobotika premiazkoago eta egokiago zaizkiola aintzinako giza banakoen *esku-lan* soila baino. Ondorioz, eta uste gabeko sorpresarik sor ez dakion esku-lana beste eskaintzarik ez duten giza banakoen elkarteak haustea eta atomizatzea interesatzen zaizkio egungo kapitalismoari. Eta elkarte horien oinarrian, gainteko guztiaren hasera eta amaiera bezala sendiarena dago. Sendiak bere ekonomiko, gordetzaille, formatzaille eta hezitzaille funtzioetan bizitzaren hastapenetik bukaeraraino beti defendituko baitu giza banakoa.

4. SENDIAREN DEFENTSAKO FUNTZIOEN BIRPRODUKZIOA

Esan duguna esanda gero, argi eta garbi dago *sendia* produkzioko moldeen arabera aldatzen joan izan dela, eta egungo gure gizartean kapitalismoak eta bere Estatuak bizi duen bide-gurutzeko egoerarekin harremanurik dagoela bere izaera. Laburturik azpimarra dezagun, kapitalismoa, tekniken berritze eta hobeagotze baten barrenean bizi denean, bere buruarekin geroz eta sendoago sentitzen dela, eta ondorioz geroz eta larriago mesprezatzen duela giza banakoaren izaera. Giza banakoa elkarteengatik defenditua izateak suposa dezakeen desafioa kontutan izanik, elkarte horiek haustera eta desegitera zuzendutako jokabide bat bideratuko du. Eta giza banakoak, historian zehar, bere defentsan

izan duen elkarte guztien artean sendiarena dugu lehena eta sendoena. Aitzitik badirudi sendiak ez duela giza banakoaren defentsa funtzioa uzteko asmorik. Kapitalismoak ekarritako gizarte alorren berrikuntzarekin bere lurrak galduak zituela bazirudien ere, ez da horrela, zeren lur berriak eskaintzen bait dizkio kapitalismoak berak ereindako aurrerapenaren truke.

Zeintzuk diren giza banakoa sendiaren defentsa funtzioak eskatzera daratzen kapitalismoak sortutako alor berri horiek? Kapitalismoaren egungo bila-kaeran alor horiek anitz motatakoak dira. Guk, nabarmentasunez guztiori berri bezala ageri zaigun euskal munduko zenbait aipatuko dugu. Zehazki hirutara mugatuko ditugu alor horiek. Lehena, langabeziarena da. Ikerketa oso bat merezi duen gaia eta gaurkoz, aipamen honekin uztera behartuta gaudena, noski. Bigarrena, drogadependentziarena da. Maila batetan aurrekoaren zerikusian, baina, bere lege propioak dituena. Hau ere oraingoz honetan utzi behar dugu. Hirugarrena, gataska politikoari doakion tratamendu erreprimizaileari jarraitzen dion herritar marjinazio larri bat da. Gataska politiko batetan erre-presioa demokratizatzeak ez du hitzamina irensteko baliorik. Aitzitik elkarrizketa da gataska politikoa gainditzeko eta hitzarmena orokortzeko bide bakarra. Elkarrizketa azken ondorioetaraino eramana, noski.

Gaurkoan bada, har ezagun gure sendiaren defentsako funtzioen alor berrien lekuko bezala gataska politikaoren tratamendu erriprimizaileak sortzen duen herritar marjinazioarena. Eta horren barrenean, gartzelatuaren aitzinean sendiak sortzen duen defentsa ingurua gaur egun nolakoa den aipatuko dugu. Lan honetarako, Joxematin Apalategik, 1983-1984 ikasturtean Zorroagako “Bortxaren Mintegi” batetarako aurkeztu zuen dokumentu inedito baten zenbait atal erabiliko dut. Berak, lan hortan, etnografiatzeko kriterio zorrotzeneri jarraituz Ondarroako herrian egiten den hizkuntzan ematen digu. Nik, halere, euskara batuan emango ditut nire lanera aldatzen ditudan bere aipamenak.

Ikasketa horretan aurkitzen dugun lehen irakasgaia hau da: Sendi mota ezberdinak, ematen badira ere, sorteri giroagatik, adinagatik, ekonomiazko egoeragatik, une honetan bizi diren herriko herritarren euskal kontzientzia mailagatik, guraso eta semeen arteko posizio politiko ezberdinagatik, eta abar... printzipio orokor bezala hau ondoriotu behar dela: “Preso munduko giroan sartzera behartuta aurkitzen den sendi batek, heurentzat egoera horrek irauten duen binbitartean, bere betidaniko giroarekin baino lotura edo elkarte haundiago bat lortzen duela orain saretu berri duen gartzelatuaren inguruko mundu horrekin”. Nola ageri zaigun hori? Zertan gorpuzten den guzti hori? Ikus ezagun mundu horretan bizi direnen kontakizun batekin.

Lehen irudi ilustratzailea: Gartzelatuaren defentsako funtzioan ari den guraso batek bisitari doatzenean eramaten dituzteen oparitxoaren sarrerak nola prestatzen dituzteen eta, aldiz gartzelako zuzendariaren partetik zer mesprezuekin jasoak diren agertzen digu. “Enbutido, gazta, jamoi edo horrelakoak. Horietatik aparte ezer ez digute lagako sartzten. Fruitu sekoak orainarte. Almen-

dra edo urrak edo intxaurrak, alegia. Intxaurrak, ordea, apurtuta. Barruko mamia bakarrik. Azkeneko paketeak eraman ginuztenean adibidez, Z.-ren, hau da, I.E.-ren gurasoei, bi andra gizon nagusi nagusiak dira, intxaurrak eraman zituzteen, baina, atezainak, ez zien sartzen utzi apurtu gabe zeudelako. Eta pentsa guzti hori nola kontatzen zidan niri aitak. Bi eskuetako hatzez intxaurrea balu bezala seinalea eginez, neu atzo arratsalde guztian aritu nintzen intxaurreak apartatzen eta orain hortarako. Eztakik zer egin! Eta hori Gabonegunean zen!” Kontalariak ondoren bero solitaritatea agertzen du.

Bigarren irudi ilustratzailea: Gartzelatutako semearen eta bisitari diren gurasoen artean politiko ikuspegi eta balorapen ezberdinak daudenean sortzen den egoera. Kontakizuna: “Semeak, gurasoei ikustea ez joateko. —Nahiago ez joatea gurasoak. Kristona baita gurasoak beren borroka ez onartzea! —Adibidez D.-ko Alkateak bere semea barruan euki zuen. —Sorian zazpi hilabetez bisitari gabe egon zen. ‘Honea ez gehiago etorri’, esan baitzien gurasoei. —Eta zazpi hilabete horiek pasatuta gero halako batetan ezin egon eta aita D.-ko alkatea joan zenean berriro, semeak barbarik egin gabe utzi zuen aita.”

Hirugarren irudi ilustratzailea: Andragaia edo gizongaia preso duen bikotearen harreman mundu zaila, edo lau haur oraino txikiak dituzteen gurasoetarikoa bat gartzelatuta duen sendiaren eskaintza maila paregabea. “—Sofrimendu modu asko, ezta? —Izan ere sofrimendu moduak dauzkatzu... Gazte jendeak ba. Batzuk ikusiko dute guk baino hobeto! Gu ere gazteak izanak gara. Baina atera kontuak andragaia edo gizongaia gaztea han, gartzelan, duenarentzat zer den! Zer izan behar duen moral aldetik!

—Eta ume txikiekin dagoen emaztearentzat!

—Ume txikiekin emaztea eta han bueltaka!

—Eta binbitartean senarra urte pilo batekin barrenean! Eta noiz urtengo den semeak jakin gabe. Adibidez, P.-ko gartzelan lau ume dauzkena badago. Emaztea kristo bat eginda Puertora eta beti bueltaka. Baina moralarekin! Gu, baino gogorragoa gero! —Zer morala!

—Izan ere gogortu egiten zara. Zer modutara gainera. Ez da sinestekoa ere”.

Hiru irudi hauen ondotik protagonista kontatzaileak, hots, sendi batetako kideak, honela ondoriotzen du kontakizuna: “—Argi ikusi dut. Hementxe gartzela munduan konprobatu dut. Horrelako gertakizunak bizitzean lehenagoko lagunartean gehiago ez zera ‘trankil’ sentitzen. Orain han betiko lekuan ez zara lagunekin tabernan edo futboleko bat sentitzen. Ez zara sendotzen. Huts zabiltza, zedorez falta zaizu. Aitzitik, preso munduko jende artean biltzen garenean, eta batek bere semea, eta besteak bere gizongaia eta besteak bere senarra hasten direnean, hortxe sendotzen zara. Eta hori asko pentsatu dut, gaixoeekin, ume atzeratuekin edo edonun norberarari ikutzen dioen hartan saretzean gertatzen dena da, hots, sendotzea”.

Elkarrizketa honetako protagonista hauek seinalatzen dutenez, sendi giroa, Euskal Herriko gataska politikoaren herritar marjinazioaren kasoa bezalakoe-tan, defentsa funtzioan sartzen da. Herri mailako gaineatiko defentsen gainetik, beste defentsa batzuk sortzeko lain ageri zaigu sendia. Bera da lehenik mugit-zen dena bide berrien urratzen. Sendiak hasera batetan bere kideen arteko eskaintza joerak hedatuko ditu. Baita sakonduko ere. Honela protagonistek aho batez ondoko gau aitortuko digute: bere buruari opatzen ez zaiona gartzelatu bati ematen zaio.

Adibide batzuren bidez azter dezagun hurbilagotik sendiaren eskaintza mundu hau euskal gartzelatuen kasuan. Ezaguna denez, gartzelatuak gure Herritik urrundirik aurkitzeak gurasoen eta sendikideen gastuak erraldoiki haun-ditzen dira. Elkarrizketalariak gurasoei gastu horiek ordaintzeko nola molda-tzen diren galdegiten die. Hara heuren ihardespena: “—Kalkulotxo bat eginda, atera kontuak urte bi Soriara astero. Astean bi bidaiara ere... bat beti! Hirurogei aldiz gutxienez urtean...

—Biharra galdu behar duzu. Biharra galtzen baduzu jornala galtzen duzu. Horren arabera, astean egun bat. Gero automobilean trasladatu. Hemendik Soriara ibiltzen automobilean bi mila pesetaren gasolina erretzen genduen. Gero, aparte pakete bat barrurako. Gainera, bost mila peseta pasatu beti... Barrun denek zedozer eosteko... derrigor behar dute. Ziarroetatik hasi eta aginak garbitzeko pasta, jaboia, eta abar...Batez beste bota hilean preso mun-du horretan hogeitamar mila peseta gastatzen dira.”

Halere ez da material beharraren dimentsio hau eskaintzaren neurri guz-tia. Bada beste alderdi azpimarragarriak. Hara nola agertzen zaigun bera:

“—Izan ere hor burruka dago arteko. Eta hori bakoitzak nola sentitzen duen hala jarduten du. Euskaldunok arazo hau, hots, euskal arazo hau barruan daramagu, denok sentitzen dugu. Modu batetara ala bestera. Orduan hori sentituaz gero, burruka dago arteko, ez da bakarrik semea han dago. Burruka asimilatzen duzu!

—Honela izanik, sarri gertatzen zaizu zeu izatea behar hortan dagoena, edo zure semea, edo gizona edo emaztea. Eta klar dago. Lapur bati edo beste preso komun bati hori pasatzean ageri ez den, arrankeak ageri da, hots, ‘la garra’. Horrelakoaren aurrean, dena emango dugu, azken batean dena!”

Guzti honen sakonean sendiaren defentsa funtzioaren bizitasuna eta haun-ditasuna ageri da.

Finean, sendiaren defentsa funtzio horrek herrisketan, gaur oraino ere, auzoa eta herriska osoa bere funtzio horietan partaidetzen ditu. Aipatu ditugun gartzelatuen inguruko gastu horiek bideratzeko, auzoaren eta herriskaren par-taidetza nahitezko da, eta bera ohi da lehortu ezinezko iturri. Laguntza hori urtearen buruan egunero bizitzaren erritmoan eman liteke edo eta urteko sasoi berezi batzuk profitatuaz laguntza egunetan loratzen dira.

Nola bata hala bestea biak ematen dira gure herrisketan.

“—Ahal duten guztia eduki dezatela. Eskribitzeko makina dakargu. Ez diote sartzen uzten. Orduan, esan geniogun, ba makina hau sartzen ez badigute uzten berriro ere etxera bialdu beharko dugu. Baina mutilak, esan zidan: beste bati pasatzen uzten badiote harentzat utzi behar duzute. Gainera, bi radio eta ahal den arropa guztiak. Guri herrian emoten dizkigute beharrezko dituenak. Bengoetxeak ere bai. Joanitak ere bai. Tenporadan tenporadako praka, jertxe, alkandora eta abar... Arroparik ez dadila falta, ba aiba. Piskabat moderno ibil daitezela gartzelan egon behar badira ere. Eta aiba, ekipo konpletoak tenporadarako. Gainera, zapatilak, zapatak eta abar. Eta gero jendeak herritar edozeinek ere bai, “zuek pentsatuko duzue zertarako ibili eta tori dirua.” Lantzin batek bost mila peseta ematen dizkigute. ...Mila peseta askok.”

Oraindainokoan herriskako dinamika pertsonala ageri da, baina, horren alboan egintza kolektiboak loratzen dira.

“—Olentzeroren okasioa dela eta aurten ere berrogeita hamalau mila peseta atera ginuzten. ...Santagedaz ere irtengo gara. Laguntza bat dagoela sentitzen bait dugu. Gainera, hilean behin herriko karrikan mahaiak ipintzen ditugu diru laguntza biltzeko. ‘Gartzelatu eta errefuxiatuen alde’. Eta batez beste hilean hogeitamar mila pesetaz goitik biltzen dira.

—Aurtengo Olentzeroz, adibidez, zortzirehun pertsonaz goitik elkartu ginen gure egintza bururatzeko.”

Guzti honek garbi uzten du gure Euskal Herrian tradiziozko eske egun izan direnak sendiaren defentsa funtzioen arabera moldatzen direla aldian aldiko beharretara. Sendiaren inguruan defentsa funtzioen birproduktzio bat dago.

5. EUSKAL SENDIA HERRI SISTEMAREN AZKEN DEFENTSA

Ondorio nagusi bat azpimarratzea zilegi baldin bazaigu, euskal sendiak gure Herri sistimaren defentsan duen egiteko funtsezkoa izendatzekoa da. Hortarako gogora ezagun historian zehar propietate pribatuaren eta kapitalaren defentsarako sortu ziren Estatu-nazio anitzkorretan, antzinako nazio elkarteak gutxituak gero ankapetuak izan direla. Geroago, kapitalismoa bera inperialismoaren aroan sartuko delarik, antzinako mespres hori eta eraso hori herri eta auzo elkarteetara hedatuko da. Finean, kapitalismoa bere produktibitate xedez liluratua esku-lana besterik eskaintzen ez dioten langileak informaketa aurrerapenetaz serbituaz ordezketa dezazketa jabeturik, jokabide hori bideratzekoan sor dezaioken traba daitekela sendiaren erresistentzia oharturik bere suntsikerara bideratuko da.

Molde honetan, gizartearen historian, elkarte zutabe nagusi bezala, nazioa, herria, auzoa eta sendia ezagutzen baditugu ere, tornuan tornuko eraso neur-

tuekin kapitalismoak banan banan denak suntsitu bide izango ditu. Halere, ez dugu uste horietariko bakar bat ere erabat garaitzerik lortu duenik. Baina, ezagutzero behartuak gaude, gaur egun horietariko bakoitzaren bizitza-indarra ezberdina dela. Ezpairik gabe, sendiaren bizitza-indarra osoen eta egokien gordetzen dela gure Herrian, nahiz eta bera ere larrialdian aurkitu zenbait eskualdetan. Eta elkarte zutabe nagusi horien arteko artean sendoen egoteak gaineatiko guztiaren defentsan azken ahal-bide izatea dakarkio.

Bestalde, gogora ezagun ere, elkarte zutabe nagusi hauek, elkarrekin osatzen zuten oro bakar hura zartatzen ikusi duten bezala, bakoitzak bere aldetik, semezko edo alabazko elkarteak sortu izan dituela. Euskal herrian, gure Herri sistema erasotuen izan den uneetan, bigarren mailako elkarte hauen sorkera eta hedakera aberatsa bezain adierazgarria izan da. Kultur elkarteak, kirol elkarteak, gastronomia elkarteak, eta abar guzti horren lekuko ditugu.

Euskal Herrian erasotua izan den Herri sistema horren defentsa bera da ere, euskal gartzelatuen eta errefuxiatuen errealtatea eragin duena. Horrela, euskal gartzelatu eta errefuxiatu ez dira giza banakoaren nolabaiteko dimentsio batetan egondako eten batengatik “kriminalizaturik” aurkitzen diren norbaitzuk, aitzitik, euskal gartzelatu eta errefuxiatu, Euskal Herri sistimaren defentsan jarduteagatik marjinatutako norbaitzuk dira.

Egin berri dudana berezketa hau berriz garrantzi haundieneko apaitzen dugu. Zeren, euskal gartzelatu eta errefuxiatuaren defenditzaile sendo eta burugogor ageri den euskal sendi hori, bere sendi kindea defenditzean Herri sistimaren defenditzaile bilakatzen baita. Honela, sendikidearen defentsa erabateko luzamenduz Herri sistimaren beteko askatasunarekin parekaturik agertzen da.

Euskal sendiak, bada, geroz eta ohartunago eduki behar du, daraman jokabideaz argitasuna. Horrek eginkizunean eta jokabidean sendotu besterik ez baitu egingo.

Bestalde, gaur egun inoiz ez bezala euskal sendia erasotzen sentitzen badugu, arrazoitua eta kalkulatu dela ondoriotu behar dugu, hots, Herri sistimaren defentsarako duen garrantziaz jabeturik dagoelako arerioa. Egia da ere, Euskal Herri sistimako elkarte zutabe nagusiei elkarrekin aterabide bat ematen diegun neurrian eta orduan bakarrik euskal sendiak ere ziurtasunik izango duela etorkizunari so.